



3

TOKI ADMINISTRAZIOA

ERREENTERIAKO UDALA

Iragarkia

Udalbatzak 2021eko apirilaren 27an (UAO) Udal Erregelamendu Organikoaren aldaketa puntuala (2. aldaketa) behin behingoz onartu zuen, zehazki 25., 34., 34 bis artikulua berria, 36., 37., 46., 53., 54., 56., 57., 68., 69. artikulua eta laugarren eta bosgarren xedapen iragankor berriak.

Ondoren jendaurreko informazio publikoan egon da 2021eko maiatzaren 12tik 2021eko ekainaren 22ra. Aipatu erakustaldi publikoan ez da ekarpen edota erreklamaziorik aurkeztu.

Hasierako onespeneren berri erregelamenduaren aldaketaren testuarekin batera Estatuko Administrazioaren erakundeari, baita Autonomia Erkidegoaren Administrazioari ere bidali zitzairen, Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 65.2 artikulua xedatutakoa betetzeko. Ez batak ez besteak ez dute ez iradokizunik ez ezer aurkeztu aipatu artikuluan adierazitako 15 eguneko epean.

Kontuan izanda hasierako onespeneren erabakiak zehazten zuela jendaurreko epea amaitu eta erreklamaziorik azaldu ezean, aipatu araudia behin betiko onartutzat hartuko zela, 2021eko uztailaren 21eko alkatetza dekretuz horrela ebatzi da.

Hori horrela Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan aurreikusitakoa betetzearren, onartutako (UAO) Udal Erregelamendu Organikoaren aldaketa puntuala horren (2. aldaketa) testu oso-osoa argitaratzen da eta indarrean sartuko da iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean.

Oro har guztiek jakin dezaten eta eraginak izan ditzan argitaratzen dut. Era berean, jakinarazten da akordio honek administrazioaren bidea agortzen duela eta horren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren aurrean, bi hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Halaber, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkeztu ahal izango da.

Hau da onartu den araudiaren testua:

ERANSKINA

Arautegiaren testua

PREANBULOA

ALDAKETAREN HELBURU, JUSTIFIKAZIO ETA EDUKIA

Bizitzen ari garen osasun pandemiak sortutako errealitateari aurre egiteko beharrezkoa suertatzen da Errenteriako Udalaren eta bere organo kolegiatuen Udal Araudi Organikoaren aldaketa puntual hau burutzea kide anitzeko udal organo desberdinen funtzionamendu-araubidearekin lotutako alderdi batzuk arautzeko.

Bere xedea Errenteriako udalaren araudi organikoaren aldaketa puntuala da. Teknologia berrien erabilera osasun pandemiaren ezohiko egoera honek eragindako beharrian berrietara egokitu nahi da, egoera horrek eragotzi egiten duelako hainbat kasuetan zinegotzien parte hartzea udal osoko bilkuretan. Ondorioz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea eta Euskadiko toki Erakundeei buruzko Legea malguago interpretatzeko hautua egiten da, lege horiek ezartzen baitute beharrezkoa dela osoko bilkurara fisikoki joatea.

Sars-CoV-2 birusak sortutako krisi sanitario, ekonomiko eta sozialak erronka bat ekarri die udal guztiei. Pandemia iritsi arte, udalen funtzionamendu-araubidean, osoko bilkurak presentzialak izan dira, beste aukera malguago batzuen aurrean, hala nola Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak kide anitzeko organoei buruz ezarritako erregulazioa. Horretaz gain, teknologiaren garapenak eta familia- eta, pertsona- kontziliazioak botoaren delegazioa bideratu dute hainbat kasutan. Horrela, 2/2016 Legeak, apirilaren 2koak, Euskadiko Toki Erakundeak arautzen dituenak, 25.6 artikuluan, korporazioko kideen botoaren delegazioa ahalbidetzen du, amatasunagatik edo aitatasunagatik.

Era guztietan, Covid-19 pandemiaren ondoren, beharrezkoa izan da berriro aztertzea ukiezinak ziruditen gai horiek guztiak, orain arte toki-ordezkarien presentzia eta ordezkarien arteko interakzioa, debatea eta eztabaida bermatuko zukeen prozedura baten bidez, udalbatzaren osoko bilkuraren borondatea eratzeko funtsezko elementutzat jo izan dituztenak.

Horrela, 11/2020 Errege Lege Dekretuak, martxoaren 31koak, Bigarren Azken Xedapenean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 46. artikuluan xedapen berri bat sartu zuen, era telematiko osoko bilkurak ahalbidetzeko.

Aurreko lege xedapenari helduta eta kontuan izanik indarrean dugun Udal Araudi Organikoak horrelako aukerak ez dituela aurreikusten gure udalean ondorengo akordioak hartu ziren pandemian murgildu ginenean bilkura erabat telematikoak kide guztientzat ahalbidetu ahal izateko, ondoren UAOan txertatzearen kalterik gabe, orain ari gara hau bideratzen:

— Alkatearen 2020/903 dekretua (7/1985 legeko 46.3 artikuluan oinarrituta), 2020/05/26ko udalbatzarrean berretsia: Covid-19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioz aurrez aurreko saioak berrezartzen diren arte batzordeak eta osoko bilkurak urrunean bitarteko telematikoen bidez burutzea ahalmentzen duena eta bilkura hauen funtzionamendu araudiak onartzen dituen.

Aurrekoaren baitan 2020ko maiatzeko kide anitzeko organoetako bilkurak kide guztientzat telematikoak izan ziren, Jitsi Meet (jitsi.org) plataformaren bidez.

— Alkatearen 2020/2310 dekretua (7/1985 legeko 46.3 artikuluan oinarrituta), 2020/11/24ko udalbatzarrean berri eman zen: Batzorde informatzaileak, Tokiko Gobernu Batzordeak eta osoko bilkurak urrunean bitarteko telematikoen bidez burutzea Covid-19aren transmisio komunitario oso altuaren (LABIren 5. maila) ondorioz ezinbesteko egoera honek arrisku kolektibo larria eragiten baitu eta eragozten baitu edo ikaragarri zailtzen baitu saio horiek aurrez aurre egin ahal izatea.

Aurreko erabakiaren baitan 2020ko azarotik gaur arte kide anitzeko organoetako bilkura telematikoekin jarraitzen dugu, Zoom (zoom.us) plataformaren bidez eta bere egunean onartutako jarraibide edo funtzionamendu arauak egokitzuz kideen identifikazioa, bozketa sistema, streaming

emisioa eta bapateko itzulpen zerbitzuan hobekuntzak txertatuz.

Hala ere, 7/1985 Legeko 46.3 artikulua oso muturreko egoerak aurreikusten ditu eta soilik kasu horietan aurreikusitakoaz baliatuta udalean hartutako akordioak ez dira nahikoak tokiko ordezkariak pandemia-garai hauetan politikan parte hartzeko duten eskubidea bermatzeko. Osasun-agintaritzak pandemia geldiarazteko pertsonak konfinatzeko emandako betebeharrak eragin larria izan dezakete parte-hartze politiko horrek funtsezko bidea duen organoen funtzionamenduan. Zehazki, indarrean dagoen araudiak ez du bermatzen medikuak aginduta etxean konfinatuta dauden zinegotziek osoko bilkuretan parte hartzeko duten eskubidea, dela egindako probetan positibo eman dutelako, dela probak egiteko zain daudelako, edo, nolana ere, isolatuta egon behar dutelako osasun-agintaritzak horretarako ezartzen duen konfinamendu-aldian. Horri guztiari ziurgabetasun-egoera gehitu behar zaio, gaixotasunaren hedapena saihesteko bitarteko eraginkorrak modu masiboan zabaldu arte.

Kode Zibilaren 3. artikulua ezartzen duenez, «Araua interpretatzeko, aurrekari historikoak eta legegintzakoak eta aplikatu behar diren garaiko errealitate soziala hartu behar dira kontuan, batez ere haien espiritua eta helburua kontuan hartuta».

Horrela, eskuartean dugun aldaketaren bitartez, iaz hartutako udal akordio bidez jada ahalbidetuak ditugun kide anitzeko organoetako urruneko bilkurak kide guztientzat modu telematikoa UAOan txertatzeaz eta arautzeaz gain, konfinamendu kasu zehatzetarako bilkura semipresentzial edo mistoen aukera ere UAOan txertatu eta arautzea aurreikusten da. Azken kasu honetan, kide gehienak presentzialki bertaratzea aurreikusten bada ere, kasu jakinetan kideren bat/ edo batzuk telematikoki bertaratu ahal izatea ahalbidetu nahi da. Aurrekoen gain, amatasunagatik edo aitatasunagatik bozka delegatuaren aukera ere arautu nahi da. Eta baita kasu honetan ere teknologia berrietaz baliatuz eta administrazio elektronikoaren hedapenarekin ere aurrera eginez kide anitzeko organoen bilkuretarako bideoakta sistema arautzea, jada erabiltzen ari garena.

Egiturari dagokionez, proposatutako aldaketak indarrean dagoen UAOren ondorengo artikuluen aldaketa planteatzen du, bis bezala araututako artikulua berriren baten aurreikuspena, besteren baten titulu aldaketa edukia bera aldatu beharrik gabe, guzti hauek ondorengo titulu, kapitulu eta sekzioetan barneratuak. Azkenik bi xedapen iragankor berri txertatzea aurreikusten da.

Bigarren titulu. Udalbatza.

Lehenengo kapitulu. Osoko bilkura. Aurre gogoetak.

Bigarren atala. Bilkuren publikotasuna.

25. artikulua. Isilpeko bilkurak.

Bigarren kapitulu. Udalbatza egin aurretik bete beharreko baldintzak.

Lehenengo atala. Deialdia.

34. artikulua. Bilkura egiteko lekua.

34.bis artikulua. Uruneko bilkurak.

36. artikulua. Bilkuretara etortzea.

37. artikulua. Alkatearen ordezkapena.

3. kapitulu. Bilkuraren hasiera eta garapena: akordio hartzeak eta bozketa.

46. artikulua. Aurreko bilkurako aktaren onespena.
53. artikulua. Bilkura-eteteak, mozketak, absentziak eta bilkura-amaiera.
54. artikulua. Bozketa.
56. artikulua. Abstenitu beharra.
57. artikulua. Bozkatzeko moduak.
5. kapitulua. Bileraren bukaera eta aktak.
68. artikulua. Bilkuretako ikus-entzunezko aktak.
69. artikulua. Ikus-entzunezko akten sistema ezarri aurreko papereko akten forma eta edukia.
- Izenburua soilik aldatu da.
- Xedapen iragankorrak.
- Laugarrena.
- Bosgarrena.

BIGARREN TITULUA

UDALBATZA

LEHENENGO KAPITULUA. -OSOKO BILKURA. AURRE GOGOETAK

BIGARREN ATALA. Billkuren publikotasuna

25. artikulua. Isilpeko bilkurak.

Udalbatzaren bilkura guztiak publikoak dira. Hori horrela, ez dagoela isilpeko bilkurarik baieztatu liteke. Alabaina, herritarren oinarrizko eskubideei eragiten dieten gaitan, hots, Konstituzioaren 18.1 artikulua aitazten dituenetan, eztabaida eta bozketa sekretuak izan litezke, Udalbatzak hala erabakiz gero.

Udal-bilkura publikoa izateak zera suposatzen du: a) bilkura osoan publikoa bertan egon litekeela bilkura presentzialetan eta erdipresentzial edo mistoetan, eta streaming bidez botatzea horretarako gaitutako kanalean urruneko bilkurak, pleno aretoa itxita egongo delako; b) hartutako akordioen ziurtagiria eskuratzeko eskubidea, eta c) akordio eta eztabaiden publikotasuna.

Gai-zerrendako puntu baten eztabaida eta bozketa isilpeko jotzeko ondorengo eran jardungo da:

- 1) Puntuaren izenburua eta batzordearen irizpena publikoki irakurriko dira.
- 2) Ondoren, Alkateak, bere kabuz edo bilkuran dagoen edozein zinegotzik proposatuta, puntuaren eztabaida eta bozketa isilpekoak izatea proposatuko du.
- 3) Bozkatuko dute, eta proposamena onartuko, Udalbatzaren legezko gehiengo osoak hala nahi badu.
- 4) Ondoren, bilkura-aretoa hustuko dute bilkura presentzialen eta erdipresentzial edo mistoen kasuan eta gero eztabaidatu eta bozkatuko dute. Uruneko bilkurak direnean, streaming bidezko

emanaldia eten eta eztabaida eta bozketa egingo dira.

5) Jarraian, publikoa aretora itzuliko da bilkura presentzialetan eta erdipresentzial edo mistoetan; urruneko bilkuretan streaming bidezko emisioari berriz ekingo zaio eta, kasu guztietan, hartutako akordioaren eta bozketaren berri emango da.

BIGARREN KAPITULUA. -UDALBATZA EGIN AURRETIK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

LEHENENGO ATALA. Deialdia

34. artikulua. Bilkura egiteko lekua.

1. Osoko bilkurak Udalaren bilkura-aretoan egingo dira. Ezinbesteko kasuren bat emango balitz, beste leku batean burutu ahal izango dira. Edonola ere, beste leku horrek ondorengo baldintzak bete beharko ditu: a) ezinbesteko kasu batek eragin beharko du; b) leku berri horrek ordezkatuaren ezaugarri eta edukiera bertsuak izango ditu; c) ordezkoa prestatzeko lanak Alkatearen dekretu bidez egingo dira deialdia egin baino lehen, beti ere, prentsa-oharren bidez edo bestelako hedabideen bidez, herritarrek ezagut dezaten ahalik eta publizitaterik zabalena emanez; d) ordezko antolaketa horren berri espresuki emango zaie zinegotzi guztiei; e) azkenik, zirkunstantzi honen berri aktan jasoko da.

2. Urruneko bilkurak, ulertuko da udaletxean egin direla.

34.bis artikulua. Urruneko bilkurak.

1. Aparteko egoeretan bilkura telematikoak egiteko aukera:

— Errenteriako Udalak bilkura horiek telematikoki burutu ahal izango ditu, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.3 artikuluan ezarritakoaren arabera 11/2020 Errege Lege Dekretuak emandako idazketan gertatzen direnean ezinbesteko, arrisku kolektibo larriko edo katastrofe publikoko aparteko egoerak, ohiko bilkuren erregimen presentzialaren funtzionamendu normala eragozten edo ikaragarri zailtzen dutenak.

— Horretarako, alkateak, edo indarreko araudiaren arabera deialdirako hura ordezkatzeko duenak, ikusita aipatutako egoera ematen dela, bilkura eratu ahal izango da, bilerak egin eta erabakiak hartu ahal izango dira urrunean bitarteko elektronikoko eta telematiko bidez, beti ere kideak Espainiako lurraldean badaude (besterik adierazi ezean, ulertuko da hala daudela) eta bilkuraren idazkariak haien identitatea egiaztatuta (ez ezagutzen dituen zinegotziak pantailaren bidez jasotako irudiarekin eta soinuarekin soilik, baita aipatutako kideak bilkuran helbide elektronikoko korporatiboari lotutako kontuaren bidez jasoko duten lotutarekin sartuta ere).

— Halaber, ziurtatu beharko da kideen arteko komunikazioa denbora errealean ematen dela, eta jarriko dira izaera publikoa (streaming bidezko emisioa bilkura-aretoa publikoarentzat itxita badago) edo sekretua bermatzeko beharrezko bitartekoak eta baita interpretazio zerbitzua bilkura presentzialetan bermatzen den moduan.

Aurrekoen ondorioetarako, baliozko bitarteko elektronikokoak izango dira audiokonferentziak, bideokonferentziak edo bestelako sistema teknologiko edo ikus-entzunezkoak, egoki bermatzen

dutenak segurtasun teknologikoa, kideen benetako parte-hartze politikoa eta hartzen diren erabakien eztabaidaren eta bozketaren baliozkotasuna, guztia ere Udaleko zerbitzuek proposatutako jarraibide tekniko-juridikoen arabera. Jarraibide horiek unean unean egokituko dira aukera teknologikoen eta indarreko araudien arabera.

Urruneko bilkuran parte hartzen duten guztiek aurrez probatuta eta bermatuta izan beharko dute Udalak bilkura burutzeko hautatutako aplikaziorako sarbidea.

2. Bilkura erdipresentzial edo mistoak egiteko aukera: kideen gehiengoa presentzialki bertaratuko da eta kideren bati onartzen zaio urrunetik konektatzeko aukera, jarraian adierazten diren egoeretan eta baldintzetan.

* Osasun-agintaritzak ezarritako konfinamendu-egoeran dauden korporazioko kideek telematikoki eta elektronikoki parte hartzeko eskubidea izango dute osoko bilkuretan.

* Errenteriako Udalak beharrezkoak diren baliabide teknologikoak bermatuko ditu eskubide hori gauzatu ahal izateko.

* Covid-19aren ondoriozko edo antzeko egoerek eragindako konfinamendu-neurri baten eraginpean dagoen korporazioko kideak dagokion bilkuran telematikoki parte hartzea eskatu beharko du, behar den aurrerapenarekin, Errenteriako Udalaren sarrera-erregistro elektronikoen bidez. Eskaerarekin batera, osasun zerbitzuek emandako agiria aurkeztu beharko du. Eskaera bilkura gauzatzea ahalbidetuko duen behar besteko aurrerapenarekin egin beharko da, udaleko zerbitzu teknikoek zinegotziaren parte-hartzea ahalbidetuko duten baliabide teknologikoak instalatu ahal izan ditzaten.

* Parte-hartze elektronikoa bermatu beharko ditu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 46.3 artikuluan xedaturiko baldintzak:

— Parte-hartzaileak egiaztatu beharko ditu bere identitatea, eta estatuko lurraldean dagoela.

— Bilkuran zehar komunikazioa denbora errealean bermatu beharko da.

— Bermatu beharko da zinegotziaren esku-hartzeak dagokion bilkuraren aktan sartuko direla.

— Zinegotziak berariaz, argi eta garbi eta erraz ezagutzeko moduan adierazi beharko du bere botoaren esanahia.

3. Osoko bilkura telematikoki eta modu erdipresentzial edo mistoan kideren batek telematikoki parte hartzen duela burutzeko, eta, ondorioz, artikuluko honen 1 eta 2. ataletan urrutitik parte hartu ahal izateko aukera ezin izango dira aplikatu kasu hauetan:

a) Toki-erakundea eratzeko osoko bilkura.

b) Toki-erakundeko alkatea hautatzea.

c) Zentsura-mozioa.

d) Konfiantza-arazoa.

e) Ixilpeko bozka sistema erabili behar denean.

4. Osoko bilkura telematikoa eta erdipresentziala edo mistoa egiteko aukera eta, ondorioz, artikuluko honen 1 eta 2. ataletan araututakoaren arabera urrunetik parte hartzeko aukera aplikatuko zaie Udaltzari, Tokiko Gobernu Batzordeari eta batzorde informatibo iraunkor eta bereziei;

ulertuko da aurreikuspen hori sartuta dagoela araudi honetako dagokien artikuluetan.

Beharrezkotzat jotzen bada, aukera hori zabaldu ahal izango da beste kide anitzeko organo batzuetara ere aholku-kontseiluak, Kontratazio Mahaia, tokiko erakunde autonomoen zuzendaritza-batzordeak, aurrez deialdia baldintza horietan eginda horietako buruak eta betiere bermatzen badira beharrezko baldintza tekniko-juridiko guztiak. Hala ere, araudi-erregulatzaileran ez bada aukera hori aurreikusten ere, ez da beharrezkoa izango berariaz araudi bakoitzean aldatzea aplikatu ahal izateko.

Artikulu honetan eta erregelamendu honetan urruneko bilkuren inguruan arautzen diren xedapenek arautuko dituzte atal honetan aipatutako organo kolegiatuak ere, aplikatzekoa zaien guztian, nahiz eta xedapen horiek garatzeko funtzionamendu-jarraibideak ere hartu ahal izango diren.

36. artikulua. Bilkuretara etortzea.

Zinegotziek deituriko bilkuretara etortzeko obligazioa dute. Ezin izango balira etorri edo kanpoan egongo balira, horren berri idatziz Alkateari edo Idazkariari emango zaio ahalik eta azkarren. Aldez aurreko jakinarazpen hau taldeko bozeramaileak edo taldearentzat lan egiten duen langileren batek eman dezake.

Ezin bada presentzialki bertaratu, urrunetik bertaratu ahal izango da, 34 bis artikuluan araututako baldintzetan.

Bilkura osoan derrigor egon beharko dute Alkateak eta Idazkariak, edo legez horiek ordezkatzeko dituztenak. Era berean, Kontu-hartzaileak bertan egon beharko du, Alkateak espresuki bestelako baimenik eman ezean. Edonola ere, bilkurara deitua izango da.

37. artikulua. Alkatearen ordezkapena.

Alkatea, izendapen-ordenaren arabera, Alkateordeak ordezkatzeko du automatikoki bilkurako presidentetzan, hura kanpoan edo gaixo balego edo ezin etorri izango balitz. Alkateordeak, delegazioak kentzeak izan ezik, gainontzeko eginkizun guztiak bere gain hartuko ditu. Ordezkapen hau bera egingo da urruneko bilkuretan, edozein puntu eztabaidatzeko garaian deskonexioa edo «pantailako absentzia» eragin duen absentzia birtuala gertatu bada edo Alkateak ez badu parte hartu behar. Azken kasu horretan, Alkateak bilkura-aretoetik irten edo bilkura telematikoa itxaron gela birtualera pasa behar du eta Alkateordeak ordezkatzeko du. Aurrekoa Legeak kasu berezietarako (zentsura-mozioko osoko bilkura, deirik egin gabeko ezohiko osoko bilkurak, etab.) xedatutakoari kalterik egin gabe egiten dela ulertuko da.

3. KAPITULUA. -BILKURAREN HASIERA ETA GARAPENA: AKORDIO HARTZEAK ETA BOZKETA

46. artikulua. Aurreko bilkurako aktaren onespena.

Udalbatzaren osoko bilkura hasitakoan, aurreko bilkurako akta onartuko da.

Elementu hauek zuzendu ahal izango dira 68. artikuluan araututako ikus-entzunezko aktetan:

— Akta laburra elementuan antzemandako mota guztietako akatsak.

— Mintzaldiak, taldeko bozeramaileak edo mintzatu zen zinegotziak proposatuta, soilik jasota utzi nahi bada grabazioan akatsen bat egon dela (hala gertatu bada eta bilkuraren idazkariak horren fede ematen badu), ikus-entzunezko dokumentua edo bideoa elementuan.

Ezin izango da zuzendu akordioen muina. Kasu honetan akordioa indarrrik gabe utzi beharko litzateke.

Akten zirriborroak Udaltzako zinegotzi guztiek, nahiz eta dena delako bilkuran egon izan edo ez, onartu ahal izango dituzte. Alabaina, zuzenketak bilkuran izandako zinegotziek bakarrik egin ahal izango dituzte.

Akta onartzeak ez du esan nahi hartutako erabakiak berresten direnik. Idazkariaren irizpidearen aurka akordioaren muinean eman litezkeen desadostasunak, idazkariak akatsik ez dagoela baldin badio eta bere irizpideari eusten badio, akta faltsifikatu izana epaitegian argitu ahal izango da soilik. Sekula, indarrrik gabe gera litekeelako, ezin izango da desadostasun hori bozketa bidez ebatzi «aurreko akta onartzeko» fase honetan.

Aktaren zirriborroa, ahal izanez gero, eramango da hurrengo ohiko bilkurara.

53. artikulua. Bilkura-eteteak, mozketak, absentziak eta bilkura-amaiera.

1. Bilkura-eteteak eta mozketak. Alkatearen ahalmen eskusiboa da. Honek bilkura eten ahal izango du taldeek atsedena hartzeko eta eztabaidatzeko. Etenaldi hori Alkateak, zuhur jardunez, hartuko du. Era berean, bilkuran zehar berari dagokio zuzendaritza eramatea eta ordena mantentzea, eta horregatik, ordena publikoa dela-eta, eten edo moztu ahal izango du, aurrez aretoa husteko agindua eman eta istiluek bere horretan badarraite.

2. Bilkura-amaiera. Egintzaren batasun-printzipioari jarraiki, bilkura hasi eta bukatu egun berean egingo da. Gaueko hamabietan bilkurari amaiera emango zaio, edozein izanda ere haren egoera. Idazkariak, Alkateak aginduta, egoeraren berri jasoko du, hain zuzen, ikusi gabeko aferak hurrengo osoko bilkurara eramateko. Alkateak, bere kabuz edo talde politikoek eskatuta, aurreko bilkuran ikusteke geraturiko gaiak aurrera eramateko presa dutela ulertuko balu, bidezko deritzon ezohiko bilkura deituko du.

Bilkura amaitzeko bestelako arrazoiak dira: beharrezkoa den legezko quoruma ez mantentzea, Udalak urruneko bilkurak egiteko gaitutako aplikatiboan gorabeherak izatea eta ordena publikoan istilu larriak ematea, halaxe dioelako araudi honen 67. artikulua.

Udalak urruneko bilkuraren hasieran egiaztatzen badu badaudela beharrezko bitarteko teknologiko nahikoak eta seguruak bilera egiteko eta erabakiak hartzeko, inoren errurik gabe gerora sortutako egoeren ondoriozkoak, printzipioz, ez lirateke hartu beharko bilkura baliogabetzeko arrazoi gisa, gorabehera teknologiko gisa, baizik, bakoitza dagokion irismenarekin, aurreko eta ondorengo paragrafoetan zehaztutakoen kalterik gabe.

Urruneko bilkura deituta dagoela, ezin bada organo kolegiatua eratu eta, ondorioz, bilera ezin bada egin ez dagoelako quorumik, edo presidentek edo idazkariak konexio-arazoren bat badu, edo konexio-arazo orokorrak badaude eta ondorioztatzen badugu bitarteko elektronikoak ez direla baliozkoak eta eraketa ez dela egokia eta ezinezkoa dela, saiatu beharko da momentuan bertan ahalik eta azkarren konpontzen eta, ezinezkoa bada, bigarren deialdian eratzen bilera, erregelamenduaren 22. eta 44. artikuluetan ezarritakoaren arabera, aurrez aurreko bilkura batean egingo litzatekeen moduan. Bigarren deialdian ere ezin bada eratu, deialdia indarrrik gabe geratuko litzateke.

3. Absentzia fisikoak edo birtualak, aldi baterakoak edo puntualak nahiz behin betikoak. Bilkura presentzialean zinegotziren bat, tarte batez bilkura-aretotik irtenez gero eta urruneko bilkuran deskonexioen edo «absentzia birtualaren» ondorioz zinegotziren batek absentzia birtuala badu bozketaren unean (erregelamendu honen 54. artikuluan xedatutakoaren baitako kontaktaren kalterik gabe), nahiz eta aldi baterakoa edo puntuala izan, ezin izango da bozketa eten, nahiz eta akordioak gehiengo kualifikatua behar izan. Absentzia horrekin beharrezko quoruma hautsiko balitz, Idazkariak Alkateari jakinaraziko dio eta honek eten egingo du berriro quoruma osatu arte.

Absentzia fisiko edo birtual hori bozketaren momentua ez den batean gertatzen bada ere ez da bilkura etengo, quorum arazorik ez badago behintzat. Urruneko bilkuretan deskonexio edo «pantailako absentzia» hori (minutu gutxi batzuk iraun dezake zinegotzia berriro konektatzen den bitartean) parekatuko da aldi baterako bilkura-aretotik irtetearekin. Idazkariak aktan jasoko du absentzia birtuala, joate- eta itzultze-orduekin. Uneko irudi/soinuaren «izozteak» ez dira aintzat hartuko, betiere segituan jarraitu ahal izan bada normaltasunez eta bilkuraren garapenean ez badute zailtasun handiagorik eragin.

Behin betiko deskonexioaren ondoriozko absentzia birtuala bilera fisikoki guztiz uztearen parekoa da. Aktan jasoko da.

Alkatea bada absentzia fisikoa edo birtuala duena, nahiz eta hori tarte baterako izan, Alkateordeak –ordenaren arabera– hartuko luke haren lekua, eta horietarikorik ez balego, bilkuran dagoen zinegotzi zaharrenak. Ordezkaritza hartu duenak, epe horretan, ahalmen guztiak izango ditu.

54. artikulua. Bozketa.

1. Bozketa da zinegotzi bakoitzak eztabaidatutako gaia onartu edo errefusatzeko duen adierazpena.

2. Botoaren nolakotasuna: zinegotziak bozkatzeko jarritako gaiaren aldeko edo aurkako bozka eman edo abstenitu daitezke. Bozkatu gabe ere geratu litezke.

3. Bilkura presentzialetan, zinegotziren bat fisikoki absente badago bozketaren momentuan, behin gaia eztabaidatzen hasi ondoren, bozketan abstenitzearen parekoa izango da.

4. Urruneko bilkuretan deskonexioa edo «pantailako absentzia» ez hain puntuala eragiten duen absentzia birtuala (eta bozketa gertatzea «absente» dagoen bitartean) hauen arabera arautuko da:

4.1. Deskonexioa gertatzen bada gai-zerrendako puntua hasia dela eta berreskuratzen bada gai-zerrendako hainbat puntu aurrerago, deskonexioa gertatzen den puntuan zinegotziaren bozka abstentzio gisa jasoko da.

4.2. Deskonektatua dagoela jorratzen diren puntuetan (puntuaren hasieratik bukaeraraino), ez du bozkatuko eta bere bozka ez da kontuan hartuko, absente gisa egongo da, eta bozketaren emaitza izango da presente daudenen aldeko botoen, aurkako botoen eta abstentzioen emaitza.

4.3. Konexioa berreskuratzen duenean, bilkuran sartuko da momentu horretan jorratzen ari diren puntuan. Bozketa hasi dela berreskuratzen badu konexioa, ulertuko da bozketa amaitu dela eta absente egon dela, deskonexioa ez bada gertatu gai-ordenako puntuaren deliberazioa jada hasita zegoela; hasita bazegoen, abstentzio gisa konputatuko da.

4.4. Zinegotziaren deskonexioa gertatzen bada bozketa hasi ondoren eta zinegotzi horrek dagoeneko bozkatu badu, botoa baliozkoa izango da.

56. artikulua. Abstenitu beharra.

Aurreko artikuluan deskribaturiko bozkatzeko eraz gain, Legeak dio zinegotzi batek ez duela eztabaidan eta bozketan parte hartu behar ondorengo kasuetan, eta gaia eztabaidatu eta bozkatzen den bitartean bilkuratik alde egin beharko luke presentzialki (bilkura-aretoetik alde eginda) edo birtualki (itxarongela birtualera pasata), non eta ez dagoen bera, zinegotzi modura, eztabaidagai. Orduan, bere burua defendatzeko bilkura-aretoan egon ahal izango da bilkura presentziala edo erdipresentziala bada eta, bilkurara konektatuta, bilkura telematikoa bada.

Abstenitu beharreko zinegotziak bozkatuko balu, akordioa deuseztagarria izango litzateke, eta beraz, izan litzakeen erantzukizunak eskatu ahal izango litzazkioke. Edonola ere, Alkateak, udal taldeak kontsultatu ostean, bideratuko du dagokion erreklamazioa.

57. artikulua. Bozkatzeko moduak.

Behin eztabaida amaitutakoan, bozketa egingo da. Botoa zinegotzi bakoitzaren eskubidea da, eta horregatik, pertsonala eta ordezkaria ezina. Alabaina, Euskadiko Toki Erakundearen 2/2016 Legearen 25.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, zinegotzi batek amatasunagatik edo aitatasunagatik bere botoa eskuordetu diezaioke bere talde politikoko bozeramaileari edo beste zinegotzi bati. Botoa eskuordetu behar da alkate-presidenteari zuzendutako idatzi baten bidez, adierazita botoa eskuordetzen duen pertsonaren eta eskuordetza jasotzen duenaren izenak, bai eta zein eztabaida eta bozketetan baliatu behar den eta noiz arte egongo den indarrean ere, gehienez ere araudi orokorrak jaiotza gertatu denetik baimenatarako ezarritako gehienekoarekin. Zinegotzi batek ezin izango du bozka bat baino gehiago izan eskuordetzan hartuta. Ezin liteke, inola ere, udal talde gisa bozkatu.

Alkateak adieraziko du argi eta garbi bozketaren xedea eta egiteko modua. Ezer esango ez balitz, ohiko moduan egiten dela ulertuko da, hau da, Alkateak alde, aurka, abstentzioak galdetuz eginiko galderari zeinu bidez erantzungo zaio. Zeinua, aurkakorik esaten ez bada, esku altxatzea izango da, fisikoki eta birtualki, bilkura presentziala edo urrunekoa izan, eta azken kasu horretan, Udalak bilkura burutzeko hautatutako aplikazioak eskaintzen dituen aukeren arabera. Gainerakoan, bozketan ez dutela esku hartzen esan nahiko du, nahiz eta bilkura-aretoan egon.

Egokiago joko balitz izenezko bozketa egitea, alegia, Idazkariak zinegotzien izenak alfabetikoki irakurriz egiten dena, lehenengo talde politikoak proposatu, eta Udalbatzak, bertan daudenen gehiengoak erabakita, onartuko beharko luke.

Isilpeko bozketa. Langileria hautatzeko edo kargutik kentzeko egiten da. Ondorio hauetarako ontzi bat prestatuko da eta zinegotzi guztiei paper zuri bat banatuko zaie, bozkatu dezaten. Era berean, bozketa sekretua egingo da bilkurak gisa horretakoak direnean. Urruneko bilkuretan ezingo da isilpeko bozketarik egin.

Eskua altxatuz bozkatzaren denean, Idazkariak jarrera bakoitzaren botoak kontatuko ditu emaitza aktan jasotzeko. Emaitzaren arabera, Alkateak akordioaren berri emango du.

Izenezko bozketa egiten denean, Idazkariak zinegotzien izenak alfabetikoki esango ditu, eta zinegotziek bai, ez, abstenitu, edo ez dutela bozkatzaren adieraziko dute. Alkateak azkeneko bozkatuko du. Idazkariak, berriz, aktan jasotzeko eta dagokionetarako, jarrera bakoitzak izan dituen botoak eta zinegotzien izenak hartuko ditu. Emaitzaren arabera, Alkateak akordioaren berri emango du.

Boto sekretua emateko ontzi bat eta zinegotzi guztientzako paper zuriak prestatu behar dira. Eginkizun hau Udalbatzako idazkariak egiten du. Ondoren, Alkateak nola bozkatuko den adieraziko du, eta Idazkariak zinegotzien izenak, alfabetikoki, emango ditu. Zinegotziak, berriz, bere botoa ontzian sartuko du. Azkeneko beti Alkateak bozkatuko du. Bozketa amaitutakoan, Alkateak ontzia irekiko eta kontaketa ozen irakurriko du. Idazkariak botoen berri jasoko du eta Alkateari adieraziko dio kontaketa azken emaitza. Ondoren, Alkateak akordioaren berri emango du.

5. KAPITULUA. BILERAREN BUKAERA ETA AKTAK

68. artikulua. Bilkuretako ikus-entzunezko aktak.

1. Osoko bilkurak bideoan grabatuko dira hasieratik amaierara, parte-hartzeak oso-osorik euskarri bideografikoan jasoak izan daitezzen. Grabazioa eta euskarri elektronikoko dokumentuak dagozkien fitxategi elektronikoen osotasuna eta benetakotasuna bermatzeko moduan gorde beharko dira, bai eta zinegotziek fitxategi horietarako sarbidea izango dutela bermatzeko moduan ere.

2. Grabaketaren ondoriozko fitxategia, grabazioaren benetakotasunari eta osotasunari buruz Idazkaritza Nagusiak emandako ziurtagiria eta bilkurako dokumentu gisa erabiltzen diren euskarri elektronikoko dokumentu guztiak bilkuraren aktarekin batera aurkeztu ahal izango dira, eztabaiden puntu nagusiak aktan jaso beharrik gabe.

3. Udalak ikus-entzunezko akten sistema erabiliko du osoko bilkuretan.

4. Honako elementu hauek, gutxienez, osatzen dituzte ikus-entzunezko aktak:

— Akta laburra: Dokumentu elektronikoa, datu hauek bilduko dituenak: bilkuraren lekua, eguna eta ordua; bertaratu diren zinegotziak, adierazita idazkaria eta kontu-hartzailea bertan direla; bilkura ohikoa edo ezohikoa den eta lehen edo bigarren deialdian egin den; bilkura bateko gai-zerrendako puntuak eta gai-zerrenda horretako puntu bakoitzean hartutako erabakiak; bozketaren emaitza, adierazita zein sistemarekin bozkatu den, eta bilera ze ordutan amaitu den.

— Ikus-entzunezko dokumentua edo bideoa: bilkuran edo bileran gertatutako guztia bideoan grabatua, audioa eta irudiak jasota. Dokumentu horrek parte-hartzaile bakoitzaren parte-hartzeen literaltasuna jasotzen du, eta dokumentu elektronikoa txertatzen da, estekatuta.

— Sinadura elektronikoa: Bilkurako idazkariaren erabilera legaleko sinadura elektronikoa, agiriari sinesgarritasuna eta zuzenbide-ondorioak ematen dizkiona.

5. Ikus-entzunezko akta dokumentu publiko eta ofiziala da, Idazkaritza Nagusiko titularrak –fede publikoa emateko bere funtzioaren arabera– sinatua eta baliozkotua. Ondorioz, kontuz erabili eta tratatu beharko dira, eta komeni da saihestea osorik edo partzialki deskargatzea eta berriz argitaratzea, kontuan hartuta gardentasun- eta publizitate-printzipioak ikus-entzunezko zatia ikustearekin bakarrik ere babesten direla. Ikus-entzunezko zatia pertsona guztien eskura dago bere toki ofizialean, erreproduktzioarako mugarik gabe. Artikulu honetan aurreikusitako zehaztasun-betebeharra ez betetzeak erantzukizuna ekarriko du ikus-entzunezko aktaren trafikoa edo birdifusioak korporazioaren irudia edo interesak kaltetzen dituen edo datuen babesari eragiten dionean.

6. Xedapen honetan aurreikusten ez denerako, indarrean dagoen aktei buruzko araubide juridikoa aplikatuko zaie ikus-entzunezko aktei.

69. artikulua. Ikus-entzunezko akten sistema ezarri aurreko papereko akten forma eta edukia.

Izenburua soilik aldatu da.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Laugarrena. Administrazio elektronikoaren printzipioak betetzen direla bermatzeko bitarteko eta zehaztapen teknikoak onartzen edo ezartzen diren heinean araudi honen zehaztapenak joko dira errealitate horri egokitu zaizkiola.

Gauza bera ulertuko da araudi osoaren hiztegiarekin ere; egokituztat eta genero-ikuspegitik aldatuztat joko da.

Bosgarrena. Araudi honen aldaketa UAOren azken xedapenean xedatutako moduan sartuko da indarrean. Aurrekoaren kalterik gabe, hasierako onespina eman ondoren, kide anitzeko organoak gehiengoz ikusten badu xedapen hauek aplikatzeko premia larria dagoela eta ordura arte ez bada horren aurkako oharrik edo alegaziorik egin, aldaketa puntual honetan xedaturikoa aplikatu ahal izango da.

Erreterria, 2021eko uztailaren 21a.—Alazne Korta Zulaika, Antolaketako ordezkaria. (5167)